



## XXXIX. NAFARROAKO KIROL JOKOAK ARAUDIA 2026

### HERRI KIROLAK – Proba konbinatua eta Sokatira 8x8

#### 1.- PROBA KONBINATUA

##### 1.1.- KATEGORIAK.

Nafarroako Herri Kirol Jokoetan hiru kategoriatan arituko dira kirolariak: Kimu maila, Haur maila eta Kadete maila.

- **Kimu mailako parte hartzaileak 2014-2015 urteetan jaiotakoak** izanen dira (Joko hauen edizio bakoitzeko Araudi Orokorrak zehazten dituen urteetan jaiotakoak, alegia). Salbuespen gisa taldeek, gehienez, 2016an jaiotako hiru kirolari (hots, Araudi Orokorrak zehazten duen urtean baino urte bat geroago jaiotakoak) sartu ahal izanen dituzte.
- **Haur mailako parte hartzaileak 2012-2013 urteetan jaiotakoak** izanen dira (Jolas hauen edizio bakoitzeko Araudi Orokorrak zehazten dituen urteetan jaiotakoak, alegia). Salbuespen gisa taldeek, gehienez, 2014an jaiotako hiru kirolari (hots, Araudi Orokorrak zehazten duen urtean baino urte bat geroago jaiotakoak) sartu ahal izanen dituzte.
- **Kadete mailako parte hartzaileak 2010-2011 urteetan jaiotakoak** izanen dira (Jolas hauen edizio bakoitzeko Araudi Orokorrak zehazten dituen urteetan jaiotakoak, alegia). Salbuespen gisa taldeek Haur mailako kirolariak sartu ahal izanen dituzte, beti ere haur mailakoak talde osoaren erdia baino gutxiago badira.

Araudi Orokorrak zehazten dituen urteak baino gehiago duen kirolariak ezin izanen du parte hartu.

Oharra: Desgaitasunen bat duten eskola-umeek aukera izanen dute adinez dagokien kategoria baino beheagoko batean parte hartzeko, baldin eta horrek dena delako txapelketara egokitzen eta hartan parte hartzen laguntzen badu; horretarako, aurrez eskaera egin beharko da, Antolaketa Batzordeak balorazioa egin beharko du eta NKJFI-k baimena eman beharko du.

Taldeak emakumezkoak, gizonetzkoak edota nahastuak izan daitezke. Talde guztiek bere kategoriako Txapelketa bakarrean hartuko dute parte. Jardunaldi guztietan eta finalean gutxienez emakumezko batek parte hartu beharko du.

Inskripzioak egiterakoan, **taldea osatzeko kopuru minimoa** ondorengoa izanen da:

Kimu mailan: Gutxienez 8 kirolarik osatu beharko dute taldea

Haur mailan: Gutxienez 10 kirolarik osatu beharko dute taldea

Kadete mailan: Gutxienez 10 kirolarik osatu beharko dute taldea

- Jardunaldietan eta finalean talde batek beste batetik gehienez bi kirolari hartu ditzake (arau hau proba konbinatuan nahiz sokatiran aplikatuko da)
- Talde batek konbinatuan eta sokatiran kirolari desberdinak erabili behar baditu (adibidez A eta Bkoak nahastuta), inskripzioak egiterakoan jakinarazi Federazioari zeintzuk osatuko duten konbinatuko taldea eta zeintzuk sokatirakoa.
- Talderen batean behar bereziko kirolaririk balego, inskripzioak egiterakoan jakinarazi Federazioari. Kirolari hauek parte hartu behar duten egunetan ere, txapelketa aurretik epaileei ohartarazi.

##### 1.2.- JOKATZEKO SISTEMA.

- Kimu, haur eta kadete mailako Proba konbinatueta 4 jardunaldi eta Finala jokatu dira. Finalean lau taldek hartuko dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.
- Kimu mailan 6 multzotan banaturik hartuko dute parte, haur mailan 2 multzotan eta kadete mailan 2 multzotan. Federazioaren esku gelditzen da jardunaldi bakoitzean multzoak zein taldek osatuko dituzten zehaztea.
- Talderen bat jardunaldi batera agertuko ez balitz, egun horretan azken postuan sailkatutako taldearen denbora + bi minutu ezarriko litzaioke (taldea jardunaldira azaldu ez izanaren zergatia aztertu ondoren).
- Talderen bat jardunaldi batera berandu iritsiko balitz, arrazoia aztertu ondoren honela jokatuko litzake:



- Berandu iristearen arrazoia taldearen akats batengatik izan bada (adibidez gurasoekin doazen haurrak esandako ordurako iritsi ez direlako): Taldeari ez zaio jardunaldian parte hartzen utziko eta jardunaldi horretan azkeneko sailkatuaren denbora + 2 minutu ezarriko zaizkio.
- Berandu iristearen arrazoia bestelako arazo batengatik izan bada (adibidez autobusa bidean matxuratu delako): Federazioak ahaleginak egingen ditu taldeak parte hartzeko aukera izan dezan (ordenak aldatuz adibidez).

### **1.3.- EGIN BEHARREKO LANAK ETA PARTE HARTZAILE KOPURUA.**

Proba Konbinatueta egin beharreko lanak eta parte hartzaile kopuruak (erreleboka eta dena hiru aldiz):

PROBA	KO.	KIMUAK	HAURRAK	KADETEAK
Lokotx biltzea	1	8 lokotx, metro bateko tarteaz jarrita (lehen lokotxa saskitik 2 metrotara)	10 lokotx, metro bateko tarteaz jarrita (lehen lokotxa saskitik 2 metrotara)	12 lokotx, metro bateko tarteaz jarrita (lehen lokotxa saskitik 2 metrotara)
Txinga eramatea	1	80 m. 3 kg.ko txingekin (2 itzuli)	80 m. 5 kg.ko txingekin (2 itzuli)	60 m. 10 kg.ko txingekin (2 itzuli)
Zaku lasterketa	3	80 m. 6 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)	80 m. 10 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)	80 m. 13 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrika	1	160 m. (2 itzuli)	160 m. (2 itzuli)	240 m. (3 itzuli)
Arpana	2	-----	70 zm.ko 2 korte	70 zm.ko 3 korte

### **1.4.- JOKATZEKO ARAUAK.**

- **Lokotx biltzea.** Biltzaile bakoitzak bildu beharko ditu berari dagozkionak, banan banan, eta saski batean sartu. Bigarren seriean lokotxak bere tokian jarri beharko ditu eta hirugarrenean berriro ere bildu.  
Parte hartzailearen batek, aurreko lokotxa sartu gabe, berri bat saskira ekarriz gero, epaileak zigorra jarriko dio: sartu ez duen lokotxa lehen zegoen lekutik metro batera jarriko du. Hala ere, epaileak beti abisatuko dio kirolariari lokotxa kanpora joan bazaio. Lokotxak honako neurrien barruan egon beharko dira: 14 eta 20 zm. bitarteko luzera eta, borobilak badira, 2,5 eta 3 zm. bitarteko diametroa, edo karratuak badira, 2,5 eta 3 zm. bitarteko aldea. Lehen lokotxa saskitik 2 metrotara jarriko da.  
Monitorea ezin izanen da saskiaren atzean jarri, beti txingean parean jarriko da.  
Lokotxak jartzerakoan (bigarren bueltan), kirolariak ezin izanen du lokotxa eskuekin hartu epaileak irteera eman arte; eskuak kanpoan eduki beharko ditu, epaileak ikusteko moduan.  
Kirolariak ezin izanen ditu lokotxak saskiaren barruan gaztelu forman prestatu.
- **Txingak.** *Kimuak eta haurrak:* Bi txingekin (esku bakoitzean bana) zehaztutako distantzia ibili beharko du: 80 m. (bi buelta egin beharko dituzte 20 metroko zatian).  
*Kadeteak:* 60 m. ibili beharko du (bi buelta 15 metroko zatian).  
*Behar berereziko kirolariak:* Beraiei egokitutako materiala erabiliko dute.  
Txingetako marra ez bada ukitzen, kirolariari beti bueltatu araziko zaio. Komeniko litzake epailea marra horretan jartzea.  
Epaileak irteera eman baino lehen txingak helduta eduki daitezke baina lurrean egon behar dute finkatuta.
- **Zakulariak.** Kirolariak, zakua lepoan duela, 80 m. lasterka egin behar ditu. Erreleboan zakua bi kirolarietara ukitu ahal dute (ematen duenak eta jasotzen duenak). Beti zakua bi eskuekin helduta egin behar da laster.  
Kirolari bati zakua lurrera erortzen bazaio, berriro ere sorbalda gainean jarri beharko du eta bi eskuekin helduta eraman. Beti ere korrika jarraitu ahal izanen du, zakua ongi jartzen duen bitartean.



Zakuen aldaketa ongi egin behar da, bizkarretik bizkarrera pasatuz. Zakua hartu eta atera behar duenak bi hankak txokoaren barruan eduki beharko ditu.

Aldaketak gaizki egiten diren kasuetan, epaileak kirolaria geldiaraziko du eta aldaketa ongi eginarazi.

Txanda bakoitza bukatutakoan zakua kontu handiarekin utzi behar da lurrean.

- **Korrika.** Korrikalariak ezarritako distantzia egin beharko du.
- **Arpana.** Arpanlariak bere kategoriari dagozkion mozketak egin beharko dizkiote 70 zm.ko zirkunferentzia duen enborrari. Mozketa bukatu baino lehen arpana aterako balitz, mozketa hori baliogabetuko litzateke. Arpanak Federazioak jarritakoak izanen dira. "Lontxa" osoa moztu behar dute beti.

Epaileak plazara ailegatutakoan egurrak zenbakituko dituzte eta **markatu egingen dituzte 3 cm-ko marrak eginez. Arpanlariak marra horiek errespetatu beharko dituzte** (Aurreko partaideek sobrante utzitako zatia + hurrengo marra osoa izanen dute beraientzat).

Adarra dagoela ikusten bada, hurrengo marrara pasatu ahal izanen dira, baina beti ere epailearen baimenarekin.

Aurreko parte hartzaileek kortea okerra utzi badute, hurrengo marrara (edo zuzen mozten ahal den marraraino) pasatu ahal izanen dira, baina beti ere epailearen baimenarekin.

Adarragatik edo kortea okerra izateagatik baztertzan den zatia beroketa moduan kendu ahal izanen dute arpanlariak.

Egurrak zenbakituta eta markatuta daudenean, antolatzaileek astoen gainean jarriko dituzte. Arpanak zenbakituta daudenez, bakoitza bere enbor zenbakiarekin parekatuko da.

Taldeek lehenengo txandan Federaziotik bidaditako kale zenbakian moztu beharko dute, hau da, lehenengo kalea egokitu zaionari lehenengo enborrean eta lehenengo arpanarekin moztuko du. Bigarren txandan, bigarren enborrera pasako da eta hirugarrenean hirugarrenera. Arpanak ez dira inongo momentuan mugituko, kirolariak izango dira mugituko direnak, modu honetan:

Multzoan **lau talde direnean:** 1-2-3 / 2-3-4 / 3-4-1 / 4-1-2

Multzoan **hiru talde direnean:** 1-2-3 / 2-3-1 / 3-1-2

Arpanlariekin printzipioz pertsona bakarra egon daiteke, honek ezin izanen dituelarik kirolaria, egurra (epaia) edota arpana ukitu **mozten ari diren bitartean**. Arpanlarien laguntzaileak ez badu pisu edo indar aski enborra eusteko, beste pertsona bat jarri ahal izanen da enborra eusteko (ahal bada beste talde batekoa). Bigarren pertsona horrek ezin izanen du hitzik egin. Arpanlarien inguruan bi pertsona baino gehiago EZ DA ONARTUKO INOLAZ ERE.

Enborraren aurreko alde txapelketarako bakarrik erabiliko da. Beroketak enborraren atzeko aldean egingen dira.

Txanda bakoitza bukatutakoan **arpana kontu handiarekin utzi behar da lurrean**. Arpanak botatzen dituzten taldeei 5 segunduko penalizazioa jarriko zaie. **Horretaz gain, arpana modu txarrean bota duen kirolariak ezin izanen du parte hartu hurrengo jardunaldian (ez badago argi zeinek bota duen, taldeko arduradunak erabakiko du zein kirolari izanen den hurrengo jardunaldian arituko ez dena).**

- **Arau orokorrak:**
  - Proba batetik bestera pasatzeko epaileak seinale bat egingen dio hurrengo kirolariari (besoa goitik behera eramanez) aurrekoak bere lana bukatutakoan.
  - Kirolari bakoitza dagokion tokian egonen da. Kirolariren batek, dagokion tokitik at dagoelarik beste bati traba egingen balio 5 segundutako penalizazioa jasoko luke (behar bereziko kirolariak salbu).
  - Proba konbinatuko lanak ezin izanen dira trukatu. Adibidez, zakulari batek ezin izanen du txanda batean zakulari aritu eta bertze txanda batean lana korrikalariarekin aldatu.
  - Kirolari batek mina hartuko balu, probarekin ez segitzeko moduan, taldeko edozeinek (egun horretan parte hartzen hari denak) bukatu lezake bere lana.
  - **Konoa bota dela kontsideratuko da erortzen denean edo bere lekutik dezente mugitzen denean. Printzipioz, epailea arduratu beharko du konoa bere lekuan jartzeaz. Momentu horretan epaileak ezin badu eta konoa traban badago, taldeko laguntzaileak egin dezakete lan hori baina lehenik epaileei erakutsiz (adibidez konoa gora altxatuz epaileak ikusteko moduan eta gero bere lekuan jarritz).**



## **1.5.- MATERIALA.**

Astoak eta egurra jardunaldi bakoitzeko talde antolatzaileak jarriko ditu. Gainontzeko materiala Federazioak eramanen du. Federazioak ezin badu materialaren bat eraman, taldeei eramateko eskatuko die.

## **1.6.- EPAILEAK.**

Federazioak 4 epaile ofizial deituko ditu jardunaldi bakoitzerako.

## **1.7.- ZIGORRAK ETA KANPORATZEAK.**

Bi motatako zigorrak egonen dira: arinak eta larriak.

**Zigor arinak.** Hemen sartuko dira arauak ez betetzetik datozenak.:

- Norbait bultzatzen bada.
- Behar baino lehenago ateratzen bada.
- Konoa botatzen bada ([edo bere lekutik asko mugitu](#)).
- Zakua jaso eta atera behar duena txokoaren barruan ez badago.
- Zakua bi eskuekin heltzen ez bada.
- [Arpanlarien laguntzaileak kirolaria, epaia edo arpana ukitzen baditu \(mozten ari diren bitartean\)](#).
- Arpanlarien bigarren laguntzaileak (egotearen kasuan) hitz egiten badu.
- Materiala (arpanak, zakuak, txingak...) modu txarrean botatzen bada.

Kasu hauetan 5 segundoko zigorra izanen dute. 5 segundoak proba bukatutakoan aplikatuko dira, azken denborari gehituz.

**Zigor larriak (KANPORATZEAK).**

- Ikuslegoa, epaileak edota beste taldeekiko edozein jarrera ez-kirolzalea. Jarrera horiek kirolari edota talde osoaren kanporaketarekin zigortuak izanen dira.
- Proba konbinatuan kirolari batek jardunaldi berean bi talde desberdinekin parte hartzen badu, bi taldeak kanporatuak izanen dira txapelketa osorako (Egunean berean konprobatzen bada horrela izan dela).
- Sokatiran kirolari batek jardunaldi berean bi talde desberdinekin parte hartzen badu, bi taldeak kanporatuak izanen dira txapelketa osorako (Egunean berean konprobatzen bada horrela izan dela).
- Txapelketan zehar kirolari batek inskribatuta egon gabe parte hartu duela konprobatzen bada, taldea kanporatua izanen da txapelketa osorako.
- Taldeko arduradun edo entrenatzailearen batek beste taldeekiko edo epaileekiko jarrera txarra izaten badu, kanporatua izanen da plazatik. Kasurik egiten ez badu, taldea zigortuko da. Epaileek txartel txuria (abisua) eta gorria (kanporatzea) erabiliko ditu kasu horietan.

## **1.8.- ALEGAZIOAK.**

Talde batek alegazioen bat egin nahi izanez gero, egunean berean edo jakinarazpena jaso eta 48 ordutako epearen barruan egin beharko du (alegazio motararen arabera). Adibidez, kirolari bat talde batean baino gehiagotan aritu izana alegatu nahi bada, egunean berean alegatu beharko litzake konprobazioa egin ahal izateko. Aldiz, emaitzetan akatsen bat ikusten bada edo taldeari ezarritako zigorren kasuan, emaitzak bidali eta 48 orduko epea izanen da alegazioak egiteko.

## **1.9.- FITXEN KONPROBAZIOAK.**

**Proba Konbinatua:** Jardunaldi guztietan fitxak eskatuko dira aleatorioki. Egun berean epaileek erabakiko dute zein talderi eskatu fitxak. Beraz derrigorrezkoa izanen da fitxa guztiak jardunaldietara eramatea.

Final egunean fitxa guztiak konprobatuko dira. Epaileek eskura izanen dute talde bakoitza osatzen duten kirolarien zerrenda.

**Sokatira:** Pisaketara kirolari bakoitzak bere fitxa eraman beharko du eta epaileari erakutsi (jardunaldi guztietan).



## 2.- SOKATIRA 8x8

Hemen aipatzen ez diren gaiak Proba Konbinatuko berberak izanen dira.

### 2.1.- JOKATZEKO SISTEMA, GEHIENEZKO PISUAK, PARTAIDE KOPURUA...

- Kimu mailan ez da Sokatira probarik eginen.
- Haur eta kadete mailan multzo bakarra izanen da. Bost jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez.
- Haur mailan, gehienezko pisua 480 kilokoa izanen da eta Kadete mailan 540 kilokoa.
- **Eskuetan ezin izanen da inolako produkturik eman (Magnesioa ere ez).**
- Parte hartzaileak taldeko **8-9 tiralari** izanen dira (nahiz haurretan nahiz kadeteetan, beti ere ezarritako pisuaren barruan sartzen badira), Proba Konbinatuan aritutako kirolari berdinak izan daitezkeelarik.
- Tiraldia irabazteko ibili beharreko distantzia 3 metrokoa izanen da.
- Inolaz ere ezin izanen dira zapatila errekauxutatuak edo lijatuak erabili.
- Atzelarien babesak gehienez 5 cm izan beharko dituzte.
- Pisaketa egin ondoren, **kirolari batek proba konbinatuan mina hartzen badu, Sokatira txapelketa hasi aurretik kirolari hori beste batekin ordezkatu ahal izanen da.** Ofizialki sartuko denez, taldeak bigarren ordezkapen bat egin ahal izanen du txapelketan zehar.
- Aldaketa egiten denean, sartzen den kirolariak ateratzen denak baino pisu haundiagoa izan dezake, beti ere pisu totaletik pasatzen ez bada taldea.
- Kirolariren batek eskuetan edo hanketan zerbait ematen duela ikusten bada (coca cola, egurraren erretxina...), jardunaldian 0 puntu jarriko zaizkio taldeari.

### 2.2.- PUNTUAKETA.

#### 2.2.1. Tiraldien puntuaketa.

Talde batek jokaldi batean (2) bi tiraldi irabazten baditu eta besteak bat ere ez, hiru (3) puntu irabaziko ditu, talde galtzaileak aldiz (0) puntu. Talde bakoitzak tiraldi bana irabazten badu, bakoitzak puntu bat (1) lortuko du.

#### 2.2.2. Jardunaldietako puntuaketa.

Jardunaldi bakoitzak dagokion puntuaketa izanen du. Jardunaldi guzietako puntuaketen batuketak erabakiko du Txapelketa zein den edo, bere kasuan, Finalera nortzuk pasako diren.

Jardunaldi bakoitzeko puntuaketa honelaxe egingen da (lau taldeko multzo bat eredutzat hartuz):

1. Sailkatua: 4 puntu / 2. Sailkatua: 3 puntu / 3. Sailkatua: 2 puntu / 4. Sailkatua: puntu 1

Hiru talde izanen balira, lehenak 3 puntu lortuko lituzke, bigarrenak 2 eta hirugarrenak 1.

Finala edo azken jardunaldiaren ondoren puntuen berdinketa emanen balitz, berdindutako taldeen arteko azken tiraldi bat egingen da (bi tiraldi irabaztera).

### 2.3.- PISAKETAK.

Kirolariak ezin izanen dira barruko arroparekin pisatu. Gutxienez kamiseta bat eta galtza motzekin egon beharko dute pisatzerakoan. Taldeak 9:30etarako pisaketan egon beharko dute. **Pisaketara kirolari bakoitzak bere fitxa eraman beharko du eta epaileari erakutsi.**



### 3.- PROBAREN ANTOLAKETA (PROBA KONBINATUA + SOKATIRA 8X8)

#### 3.1. TALDE ANTOLATZAILEA

Jardunaldiko talde antolatzaileak honako zereginak izanen ditu:

- ⇒ Goma eta soka bilatzeaz arduratu beharko du. Bigarren goma eta soka Federazioak eramanen ditu.
- ⇒ Baskula 9:30etarako martxan egon beharko du, pisaketarako prestatutako gela batean. Talde arduradunak aurreko jardunaldian jaso beharko du baskula.
- ⇒ Kamionetako material guztia deskargatu (zakuak, saskiak, txingak, gomak...) eta proba bukatzean berriz kargatu
- ⇒ Jokalekuaren muntaia eta bilketaz arduratu. Plaza prestatu eta jokalekua markatu (piboteak, lokotxendako marrak, txingak,...).
- ⇒ Jokalekua zintarekin itxi.
- ⇒ Egurra plazaratu / egurra markatuta dagoenean astoen gainean jarri.
- ⇒ Talde guztientzat astoak jarri.
- ⇒ Proba konbinatuetan zehar plaza garbitzeaz arduratu (ezpalak baztertu eta eskoba pasatu behar den lekuetan).
- ⇒ Proba konbinatuak bukatutakoan gomak eta sokak frontoian jartzeaz arduratu.
- ⇒ Proba konbinatuko **aktak betetzeko pertsona bat jarri**. Pertsona hau mahaian egon beharko du, hizlariaren ondoan.
- ⇒ Finala antolatzen duen taldeak sari banaketako lekua prestatu beharko du. Baita sariak banatzeko norbait bilatu ere.

Jardunaldia antolatzeak ekartzen dituen gastuak kubritzeko talde antolatzaileak Nafarroako Gobernuak banatzen duen diru-laguntza jasoko du (jardunaldi bakoitzeko 530€). Diru-laguntza horretatik Federazioko epaileak (**280 euro**), megafonia (**10 euro**) eta aurkezlea (**70 euro**) ordaindu beharko ditu talde antolatzaileak. Horretaz gain egurra eta muntaia erabiltzeko gastuak ere bere gain hartu beharko ditu.

#### 3.2. JARDUNALDIAREN GARAPENA

- Federazioko langileak autobusen irteera orduaren berri emanen die taldeei jardunaldia baino egun batzuk lehenago.
- Talde bereko kirolari guzietan, gutxienez, kamiseta berdina eramanen dute.
- Kirol Elkarte batek kategoria berean talde bat baino gehiago ateratzen badu, taldeak desberdintzeko modu bat aurkitu beharko du.
- Talde antolatzaileak jokalekua prest izanen du, Federazioko arduradunek materiala ekartzearen zain.
- Talde antolatzaileak materiala dagokion tokira eramanen du.
- Talde bakoitzeko arduradunak aktak (eguneko parte hartzaileen zerrendak) bete eta epaileari eramanen dizkio. Horretaz gain, bere taldeko kirolariak elkarrekin mantenduko ditu.
- Kirolarien fitxak egiaztatuko dira aleatorioki.
- Egurrak zenbakitu eta markatuko dira (haurretan zein kadeteetan)
- Proben ordena ondorengoa izanen da: Haur Mailako Proba Konbinatua, Kadete Mailako Proba Konbinatua, Kimu Mailako Proba Konbinatua, Haur eta Kadete Mailako Sokatira (Azken orduko ezustekoren bat izanez gero, ordena aldatu ahal izanen da egunean berean).
- Leku eta talde aldaketak ahalik eta azkarren egitea eskatzen da.
- Proba bukatutakoan kirolariak autobusera itzuliko dira eta talde antolatzaileak material guztia bildu eta kamionetan sartuko du.
- Talde bakoitzeko arduradunak bere kirolariei jakinarazi beharko die zaborra ez dela lurrera bota behar. Pilotalekua ahalik eta garbien uzten saiatu behar da denen artean.



### **3.3. EPAILEAK.**

- Taldeetako arduradunek ekarriko dituzten aktak egiaztatuko dituzte.
- Kirolarien fitxak eskatuko dituzte taldeei aleatorioki.
- Enborrak zenbakitu eta markatuko dituzte.
- Jokalekuaren neurriak Araudian zehazten direnen barruan daudela egiaztatuko dute (ongi ez baleude, taldeen adostasunarekin joka liteke).
- Taldeen pisaketa egingen dute (pisaketara kirolari bakoitzak bere fitxa eraman beharko du).
- Aktak beteko dituzte eta Federaziora helaraziko dituzte.



**4.- PARTE HARTZAILEAK ETA EGUTEGIA (PROBA KONBINATUA ETA SOKATIRA 8X8)**

**2.026ko NAFARROAKO HERRI KIROL JOKOAK  
KATEGORIAK, MODALITATEAK, TALDEAK ETA EGUTEGIA**

<b>Kimuak (2014-2015)</b>	<b>Haurrak (2012-2013)</b>		<b>Kadeteak (2010-2011)</b>	
<b>KONBINATUA</b>	<b>KONBINATUA</b>	<b>SOKATIRA</b>	<b>KONBINATUA</b>	<b>SOKATIRA</b>
Andra Mari 1	Andra Mari 1	Andra Mari 1	Andra Mari	Andra Mari
Andra Mari 2	Andra Mari 2	Andra Mari 2		
Andra Mari 3				
Antsoain A	Antsoain	Antsoain	Antsoain A	Antsoain A
Antsoain B			Antsoain B	Antsoain B
Antsoain C				
Antsoain D				
Araxes			Araxes	
Basaburua A	Basaburua	Basaburua	Basaburua A	Basaburua
Basaburua B			Basaburua B	
Berriozar A	Berriozar	Berriozar	Berriozar	Berriozar
Berriozar B				
Igantzi				
Iñigo Aritza 1	Iñigo Aritza	Iñigo Aritza		Iñigo Aritza
Iñigo Aritza 2				
Joakin Lizarraga A				
Joakin Lizarraga B				
Joakin Lizarraga C				
Paz De Ziganda A	PdZ	PdZ		
Paz De Ziganda B				
Paz De Ziganda C				
<b>21</b>	<b>7</b>	<b>7</b>	<b>7</b>	<b>6</b>

**Probak orden honetan burutuko dira:** Haur mailako P.K. / Kadete mailako P.K. / Kimu mailako P.K. / Haur eta Kadete Mailako Sokatira

Jardunaldiak, honako egun, ordu eta lekuetan Jokatuko dira:

- |                                     |   |
|-------------------------------------|---|
| 1. Jardunaldia: MARTXOAK 1 (10:30)  | Berriozar – Kiroldegiko frontoia                  |
| 2. Jardunaldia: MARTXOAK 8 (10:30)  | Atarrabia – Paz De Ziganda Ikastola               |
| 3. Jardunaldia: MARTXOAK 15 (10:30) | Altsasu – Ioartia Plazan edo Burunda pilotalekuan |
| 4. Jardunaldia: MARTXOAK 22 (10:30) | Arbizu – Kiroldegia                               |
| 5. Finala: MARTXOAK 29 (11:00)      | Baztan  |